



BESTALDEAN

EUSKAL IHESLARI POLITIKOEN BIZIPENAK

2022
MAIATZA

Jaione Dorai Oskotz - Ernesto Prat Urzainki

Nor dira silueta beltz betiberdin horien atzeko pertsonak? Zenbat urte dira itzal bihurtu zirela? Beste bat bihurtu behar izan ote dute? Beste nor dira gaur? Lagundu al die gordetzeak berriz hasteko? Hasteko, non? Hasteko, zertan? Nola hasi hutsetik, jakin gabe noiz arte?

1960tik 2010era bitartean, 3.000 euskal herritar inguruk ihes egin zuten beren sorterritik, eta nork bere bideari ekin zion, askotariko baldintza, garai eta geografiatan. 2014an agerraldia egin zuen iheslarien kolektiboak Arrangoitzen, eta ordutik ari dira pixkana haietako asko sorterrira itzultzen. Hargatik, tantaka baino ez dugu jaso haien ibilbidearen eta erbestean igarotako bizialdiaren berri, eta neurri handi batean ezezaguna da oraindik euskal iheslari politikoen errealitatea jendarte zabalaren begi-belarrietara. Liburu honek, zenbait iheslariaren lekukotzaren bitartez, hamarkadatan luzatu den eta oraindik amaitu ez den deseriaren bidaian murgiltzeko tresna izan nahi du. Noizbait iheslari guztien egoera konponduko bada, ezinbestekoa baita bizitakoak eta bizitzen ari direnak ezagutzera ematea.

SAIAKERA

ISBN: **978-84-18252-90-7**

ORRIALDEAK: **212** (inguru)

FORMATUA: **13,5 x 21,5**

PREZIOA: **17,00 €** (inguru)

- Hamaika euskal iheslari politikoren bizipenak, beren ahotsean, lehen aldiz.
- Gatazkaren ondorio ezkutuenetako baten kontaketa.
- Liburua gaika egituratua dago, irakurketa arina eta zabala egiteko.

«Euskaraz *nonbait* egongo da edo *inon egongo da* erran daiteke, eta bada Euskal Herri bat inon horretan bizi dena».

Ametz Arzallus



Jaione Dorai Oskotz

(Berriozar, 1985)
Kazetaritza ikasketak egin zituen EHU, Euskal Ikasketen masterra Baionan eta Hizkuntza Plangintza graduondokoa EHU. Herri mugimenduan aritu izan da, eta horren ondorioz 2009an ihes egin behar izan zuen. 2014an itzuli zen sorterrira. Ipar Euskal Herrian hamabi urtez bizi izan da, non ikastolako langile aritu baita, eta gaur egun euskara teknikari lanetan dabil Nafarroan.



Ernesto Prat Urzainki, *Little*

(Berriozar, 1978)
Nekazaritzari eta zurgintzari lotutako ikasketak egin zituen. 2008an ihes egin zuen Guardia Zibilaren atzaparretatik eta idazten hasi zen. 2012an Urruñan atxilotu zuten. Egun Lekarozen bizi da eta ASLANA Nafarroako ardi latxaren elkarteko langilea da. Sarietak tarteko idatzi dituen ipuinez gainera, hiru nobela argitaratu ditu: *Hiru ilargi laurden* (Metaziri, 2013), *Orpoz orpo* (Txalaparta, 2014) eta *Telleria eta gero, zer?* (Elkar, 2017). Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatzen duen (H)ilbeltza kolektiboko kidea da.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus